

## **10 AKTA**

### **2001eko abuztuaren 8an ospatutako APARTEKO GOBERNU BATZORDEA**

Pasaiako Hirian eta bertako Udaletxean, bi mila eta bateko martxoaren hogeita hamarren, Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian, Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko Idazkaria bertan delarik, hurrengo zinegotziak bildu dira:

Joseba Portugal Arteaga j.  
Rikardo del Pozo Gil de Albornoz j.

araz kurtsatu eta publikatu den deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko. Ezin etorria agertu du Obdu Lorenzo de Dios andreak oporretan dagoelako. Ez du ezin etorria agertu Angel Ouviaña Vidal jaunak.

Lehendakaritzak konstataturik Udalbatza legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 9:00etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekinez.

### **1.- Aurreko batzarraldietako aktak, 8. eta 9., hurrenez hurren, 01-6-26 eta 01-7-20ak, irakurri eta onartzea.**

Bertakoen kontsiderazioan jarriarik atalburuan aipatzen diren aktak, hurrengo zuzenketa egin da:

8. aktan, 14. puntuan: "... hegoaldeko fatxada" dioen lekuan esan behar du  
"... Iparraldeko fatxada".

9. aktan, 12. puntuan: "Antonio Mateos García abokatua" dioen lekuan esan behar du  
"Joakin Silgueiro Estagnan abokatua".

Aipatu zuzenketak erantsirik, Gobernu Batzordeak erabaki du beren osoan ontzat eman eta dagokien Akta-liburuan transkribatzea.

### **2.- 8/01 zenkakiko kontu-fakturen zerrenda.**

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea 8/01 zka. daraman kontu-fakturen zerrenda, HEMEZORTZI MILIOI HIRUREHUN ETA BERROGEITA HIRU MILA BERREHUN ETA HOGEI (18.343.220,-) pezetako inportez.

### **3.- “Rikardo Arrillaga kalean igogailua jarri eta Trintxerpeko Itsas Institutuaren inguruan urbanizazio osagarria egiteko” obraren 1. ziurtagiria.**

Gobernu Batzordeak, Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena emanik, eta bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea “Rikardo Arrillaga kalean igogailua jarri eta Trintxerpeko Itsas Institutuaren inguruan urbanizazio osagarria egiteko” obraren 1. ziurtagiria, Rodrigo Milla Azkona Obra Zuzendaria den Arkitekto jaunak luzatua, CONSTRUCCIONES ERGA, S.L. enpresa kontratistaren alde, ZORTZI MILIOI ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA ZORTZI MILA EHUN ETA HOGEITA HAMAIKA (8.748.131,-) pezetako inportekoa.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko D-1494/00 Disposamenduaren kargura.

### **4.- 3. ziurtagiria: “Antxo Iparra 01 (C1 Azoka) ingurua hiritartzea”.**

Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea “Antxo Iparra 01 (C1 Azoka) ingurua hiritartzea” obraren 3. ziurtagiria, Pedro Idarreta, Juan Karlos Lapazaran eta Jose Maria Irazusta Obra Zuzendariak diren jaunek luzatua CONSTRUCCIONES DONOSTI enpresa kontratistaren alde, ZORTZI MILIOI HIRUREHUN ETA HEMERETZI MILA LAUREHUN ETA HIRU (8.319.403,-) pezetako inportez.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-1659/00 Baimenduaren kargura.

### **5.- Pasaia Lezo lizeoari ordainketa.**

Kulturako zinegotzi delegatuak 2001eko uztailaren 26an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- PASAIA-LEZO lizeoari 9.000.000,- pezetako kantitatea ordaintzea Udalaren eta aipatu zentroaren artean 2001eko uztailaren 24an suskribatutako Konbenioaren arabera.

Hori guztia horretarako sortutako 1-05-00-481-422-00-02 Lizeo Hitzarmena partidaren aurka.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiekeen errekurtsioekin.

### **6.- Ikastetxeei subentzioa – 2001eko 1. seihilekoa.**

Kultura eta Hezkuntzako Udal Batzorde Informatiboak 2001eko uztailaren 24an emandako diktameneko proposamenez, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

Hurrengo Ikastetxeei 2001eko 1. seihileko subentzioa ematea:

KARMENGO AMA H.I.....	4.890.535,- pta.
PASAI-LEZO lizeoa.....	2.126.563,- pta.
KARMENGO AMA H.I. GURASO ELKARTEA..	155.903,- pta.
E.P.A.....	10.700,- pta.
	-----
GUZTIRA....	7.183.701,- pta.
	=====

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-893/01 Baimenduaren kargura.

#### **7.- Zahar Etxeentzako dirulaguntzak.**

Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2001eko abuztuaren 3an idatziz egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

Pasai Antxoko Preinca Aurrejubilatuen Elkarteari 45.174,- pezetako subentzioa ematea.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-908/01 Baimenduaren kargura.

#### **8.- Bordatxo Kultur Elkartearen kontratuaren prezioa eguneratzea.**

Eskaturik M<sup>a</sup> PILAR ALKIZA AMEZTOI andreak PASAIAKO BORDATXO KULTUR ELKARTEAREN izenean, Hartzaindegia-Eskola zerbitzuaren kontzesiorako kontratu administratiboan aurreikusten den subentzioaren errebisioa, hau guztia aipatu kontratuko Klausula Administratibo Berezien Pleguaren arabera.

Ikusirik Udal honetako Kultura eta Hezkuntzako Arduradunaren 2000ko abenduaren 18ko txostena, eta baita 2001eko abuztuaren 2ko Kontuhartzaitzaren txostena, non koantifikatu den K.P.I.-ren igoera 39.102,- pezetatan, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Hartzaindegia-Eskola zerbitzuaren kontzesiorako Kontratu Administritiboko Klausula Administratibo Berezien Pleguko Zazpigarren Klausulan aurreikusten den subentzioa eguneratzea 39.102,- pezetatan, Euskal Herriko Erkidego

Autonomoko Kontsumoaren Prezio Indizeen bariazioa aplikatuz lortzen dena, hots, %3,8koa. Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko 01.00.481.00.01 partidaren kargura.

**BIGARREN.-** Eman biezaio akordio honen berri Kultura eta Hezkuntzaren Departamenduari, Kontuhartzaitzakoari eta Kudeaketako Administariari.

**HIRUGARREN.-** Akordio honen berri interesatuari ematea legezkiokkeen errekurtsoekin.

### **9.- Hiri-altzariak hornitu eta jartzeko lehiaketa.**

Azterturik hainbat hiri-altzari kontratatu eta jartzeko kontratazio-espedita eta gertaturik bertan jasotzen direla ontzat emateko beharrezko elementu guztiak.

Ikusirik Udal Idazkariak abuztuaren 7an luzatutako txostena eta Kontuhartzaitzak abuztuaren 8an emandakoa.

Kontuan izanik Gobernu Batzorde hau organo kompetentea dela Aurrekontua Exekutatzeko Araueko ebazpenez eta 1999ko uztailaren 12ko Alkatetzaren Delegazioz,

**E R A B A K I D U**

**LEHENENGO.-** Hainbat hiri-altzari kontratatu eta jartzeko kontratazio-espedita ontzat ematea 15.550.000,- pezetako aurrekontuarekin.

**BIGARREN.-** Gastua ontzat ematea indarreango udal-aurrekontuko A-1796/00 Baimenduaren eta A-911/01 Baimenduaren kargura.

**HIRUGARREN.-** Klausula Ekonomiko Administatibo Berezien Plegua onartzea hala nola kontratuko Oinarrizko Legea.

**LAUGARREN.-** Kontratua lehiaketa irekiaren prozeduraz esleitzea.

**BOSGARREN.-** Dagokion kontratua esleitzeko arauzko gainerako izapide guztiak betetzea.

Eta aztertzeke beste gairik ezean, 14:00etan amaitutzat eman da batzarraldia, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik.

**oOo**

